

AHTren AURKAKO ASANBLADA CURRICULUMA ETA INGURUMENA

Ingurumenaz mintzatzen garenean, ez gara natur inguruneaz soilik ari. Aitzitik, pertsonak bizi diren ingurunearekin, bizi ez direnarekin eta elkarren artean dituzten harremanak ere aipatzen ditugu. Areago, “ingurumen” hitza pixka bat murriztailea ere iruditzen zaigu, ekonomia, gizarte eta lan arloko harremanek bizi garen ingurunea guztiz baldintzatzen dutela kontuan hartuz gero, baita ekoizpen, gizarte eta lurralde ereduak ere. Horiek guztiak irizpide jakin batzuetan oinarritzen den plangintza politiko eta ekonomiko jakin baten ondorio dira eta, horregatik, honelako lantegi bat ezin da gizarte edo ekonomia arloko politiketatik bereizi, ezta gizarte eta kultura eredutik ere. Gai horiek guztiak elkarren artean lotuta daude berez.

Premisa hori abiapuntu hartuta, uste dugu naturarekin eta ingurumenarekin zerikusia duten gaiak landuko dituen curriculuma egiteko, curriculum horrek berak jorratzen dituen gainerako gaiak ere hartu behar dira kontuan, gai guztiak elkarren artean lotuta daudelako berez.

Hezkuntza ereduaren isla da eta, aldi berean, gizarte ereduaren isla da eta, aldi berean, gizarte ereduaren emaitza da. Elkarren artean lotuta daude. Horrenbestez, eskolak curriculum askatzailea izango badu, gizarteak ere askea izan behar du maila berean; bestela, edozein asmo hutsala da, porrot egitera kondenatuta dagoelako.

Natura zaindu eta babesteko, gizarte eredu barneratzailea behar da, ekonomia, politika, gizarte eta kultur arloko harremanak zuzentasunaren eta errespetuaren arabera diseinatuko dituenak, ekoizpenaren eta ekonomiaren arabera antolatu beharrean. Izan ere, erkidegoa osatzen duten pertsona, talde eta izaki guztien ongizatean oinarritzen den gizarte ereduak arrazoizko irizpideak aplikatzen ditu eta, horri esker, egitura osatzen duten kide guztien arteko harremanak bidezkoak dira. Aitzitik, gutxiengoaren interesak badira nagusi, pertsona gehienak energiak jabetzea beste helbururik ez duten politika suntsitzaileek txikitutako ingurunean bizi dira, eta bizi kalitatea hutsaren hurrengoa da; gainera, zoritxarrez, kaltetutako gehiengoak ez dira ohartzen zenbateraino alienatu eta engainatzen dituzten boterean daudenek.

Horiek hala, uste dugu EZINEZKOA dela ingurumen balioetan hezteko lurraldea, ingurunea eta lurralde eta ingurune horretan bizi direnen arteko harreman ekonomikoak, sozialak eta kulturalak suntsituta dauden bitartean. Areago, uste dugu itxurakeria baino ez dela, eguneroko gertaera lazgarrien frogak ezabatzen ahalegintzeko; ahalegin horrek, baina, porrot egiten du.

Euskal Herria tokiko agintariak biztanleria guztiari eztabaida eta, are gutxiago, adostasunik gabe ezartzen dizkioten politikak *lobby* ekonomiko eskas batzuen interesek moldatu eta baldintzatzen dituztelako adierazgarri garbia da. Ildo horretan, azpiegitura nagusiak indarraren bitartez inposatzen dira, eta lurraldea antolatzeko eredu negargarri baten ondorio dira; eredu horren ondorioz, zatiketarako arazoak besterik ez dakartza eta pertsonak barneratu eta euren arteko harremanak kontuan hartzen dituen gizarte ereduaren egozten du nola edo hala.

Nola liteke ingurumen balioetan hezteko, Euskal Herria mugan zehar sartu eta ateratzen diren salgaiak garraiatzeko korridoretzat diseinatzen duten planak gauzatzen badira?

Alde horretatik, izugarri bitxia iruditzen zaigu Lakuako Gobernuaren Garapen Iraunkorreko Sailak giputz batek batez beste dagozkionak baino lau hektarea gehiago kontsumitzen dituela argitzea, Lurreko biztanle oro egokiro bizitzeko oinatz ekologiko

gehienekoa hektarea bat eta koskakoa dela kontuan hartuz gero; izan ere, Lurreko biztanle guztiek geuk bezala kontsumituko balute, beste hiru planeta beharko genituzke.

Hala eta guztiz ere, ez du ezertarako balio datu ikaragarri hori eman eta, aldi berean, nekazari eta abeltzain txikiak lur eta bizimodurik gabe uzten dituzten politikak aplikatzea, tokian tokiko merkatuak eta denda txikiak zapaltzen dituzten saltoki handiak irekitzea nonahi, azpiegitura txikitzaileak (esate baterako, AHT eta lurraldeen arteko desorekan sakontzen duten autobideak) eraikitzea, pertsona gehienei kalte egiten dieten enpresa armagileak eta kutsatzaileak kokatzea, espekulazioari eta lantokitik, ikastetxetik eta aisia emateko tokietatik urrun dauden etxebizitzak eraikitzeri bide eman eta, hartara, autoa erabili beharra areagotu eta gizarte harremanen zatiketan sakontzea...

Uste dugu eskizofreniak ez duela arazoa konpontzen lagunduko. Izan ere, **beste balio askatzaile batzuetan oinarritutako hezkuntza eredua diseinatzeko, gizartea aldatu eta botere egitura zapaltzaile eta totalitarioak desagerrarazteko borrokatu behar da.** Era berean, gizartearen zati handi batek kontzientzia hartu behar du politika, ekonomia, gizarte eta lan arloko harremanak beste ikuspegi batetik aztertu behar direla, guztion ongizatea izan dadin nagusi zekenkeriaren eta indibidualismoaren ordez.